

# Aurten bukatu nahi dute lehen zuzentzaile ortografikoa

'Xuxen' programa informatikoa Donostiako Informatika fakultatean egiten ari dira

BENJAMIN LANA


**K**ONPUTAGAILUEN erresuman ere, euskara lehenengo pausuak ematen hasia da. Datozen Gabonetan, ziur asko, Donostiako Informatika fakultateko irakasle eta ikasle talde batek plazaratuko du Xuxen, euskararako estraineko zuzentzaile ortografikoa.

Hamairu pertsona, bost urte eta hamar milioi pezeta behar izan dira proiektua aurrera eramateko. Euskararen berezitasunak izan dira errudunak. Ingelesean edo gaztelaniaz egiten diren hiztegi ortografikoak hitz multzoak edo zerrendak besterik ez ziren. Xuxen-ek, aldiz, hitz bakoitzaren analisi morfologikoa egiten du. Euskaraz deklinazioak daude eta esaldiak osatzen dira sintagmei atzizkiak lotuz; honek erabat konplikatzen du zuzenketa.

Deklinabidea osoa erabiliz, hitz bakarrak ehun milla konbinazio baino gehiago eman ditzake eta hori gehiegi litzateke 45.000 hitz ezberdinak sartu nahi badira hiztegian.

Xuxen programa informatikoa euskararen hitzak eta erregela morfologikoa ditu bere barruan eta euskaraz dagoen edozein hitza ondo idatzita dagoen jakiteko gai da. Amarenganakoarengandik hitza aurkitzen denean zatitzen du erroa eta dauzkan deklinazio kasu guztiak: ama-ren-gana-ko-aren-gandik. Segundoko hamar hitz aztertzen ditu, baina salmantan jarriko den bertsioa apalagoa izango da.

Prototipoa bukatutzat eman dute Kepa Sarasola eta Xabier Artola talde buruek. Ikertze lana amaitu ondoren, Baionako Hizkia enpresak egokituko du Xuxen, edozein



Kepa Sarasola eta Xabier Artola dira taldeburuak /MIKEL

pertsonak «menu» errez batzuren bidez erabil dezaten. «Word Perfect», PC munduan, eta «Microsoft Word», Macintoshen, testu editoreetan lan egiteko prestatuko da hasieran. Baina C lengoian programatuta dagoenez, beste edozein ordenadore eta programa motatarako egokitu daiteke.

Salneurria oraindik ez dago erabakia, baina Kepa Sarasolaren iritzian, «egokia izango da jendeak eros dezaten. Inportanteena, pozgarriena, eginda egotea eta jendea erabiltzea da. Gure helburua ez da dirua irabaztea, ikertzea bai-zik».

Baliteke lehenengo bertsio bat

kaleratzea jendeak ikusteko eta erabileran ohitzeko eta geroxeago bertsio zehatzagoak plazaratu. Kopia piratak arazo larria izan daitezke eta egileek aitortzen dute aztertu beharko dutela nola konpondu, «bestela mundu osoan kopia bakarra salduko dugu».

## Erabiltzailegai ugari

Egileak ziur daude Xuxen bezalako tresnak beharrezkoak direla euskaraz normaltzeko. «Tresna hauek prestatzen ez badugu, dena dengelesean egiten bukatuko dugu, errezagoa egingo zaigulako. Hizkuntza haundiek eremu gehia-

go lor ez dezaten beharrezkoa da, gutxienez, gure lengoiairekin lan egiteko aukera berdinak edukitzea».

Egileen ustez, erabiltzaile ugari eta mota ezberdinetakoak izango ditu Xuxen-ek.

Alfabetatu gabe edo guztiz alfabetatuta ez dauden pertsonentzat oso lagungarria izan daiteke, zuzentzaileak esaten baitie idatzitako hitza ondo dagoen edo euskaraz idatzian erabiltzen den. Ezaugarri hau bultzatzeko, pentsatzen ari dira geroan ohizko erroren tratamendua egiten duen aukera gehitzea. «Letra organikoak, edo forma dialektalak erabiltzen direnean (-tikan, adibidez), ordenadoreak mezu bat azaltzen du, esanez hori ez dela euskaraz batuan erabiltzen».

## Analisi morfologikoa, interesgarriagoa

Orain arte, ikerlan hauek diru publikoaz egin dira, baina oso merkatu handia omen da eta Sarasolak dio hizkuntza industriak badatozela: «Badaude hizkuntza aplikazioak egitera dedikatzen diren enpresak eta askoz gehiago sortuko dira inbertsio haundiegia behar ez direlako».

Informatikako taldeak egindako estraineko lan hau inportantea da, baina zuzentzaile ortografikoa baino interesgarriagoa barruan daukan analizatzaile morfologikoa da. Bigarren tresna honek hizkuntzaren beste azterketa sakonagoak egiteko balio baitu.

Hurrengo pausua euskararen formalismoen ikerketa bat izango da, programa informatikoa analisi sintaktikoak egiteko gauza izan dadin.

Hitz gutxitan esateko, 60eko eta 70eko hamarkadan euskal munduak sortu zuen memorabilia abertzalea orainxe hasi da desagertzen eta hemendik gutxira baliaduna bihurtuko da, bai kulturalki zein ekonomikoki. Azken bi hamarkada t'erdiko «euskadiana» antzinateko bihurtzera dihoakigu. Beraz, etxeko zoko zahar guztiak ondo arakatu, topatzen duzuenak kaxaren batean ondo batu eta berriro ere zokoren batean txukun-txukun gorde. Ez zazizue damutuko.

## ▼ Artzainen neguko bizimodua

Artzain batzuek etxetik gertu pasatzen dute negua. Beste batzuek ez daukate horrelako suerte onik. Urteko garai honetan ordu luzeak egiten dituzte ardiak zain eta ez dira libratzen ardiak jatsi beharretik ere.

## ▼ Herri Eskolak, Goierri aldeko errealitate sendoa

Goierriko hamar bat herritan aspaldi hasi ziren Ikastolek eta Eskola Publikoek bat egiten. Ez dute herri txikietako eskolak desagertzerik nahi eta, momentu honetan, Jaur-laritzak zer nolako Eskola Mapa egiten duen zain daude.

Arduraduna:  
FELIX IBARGUTXI

## LEHENIK

# Abertzaletasuna ere aintzinateko

JOSEBA GABILONDO

garaia amaitu zen aspaldi. Osabaren edota aitona-amonen zilarrezko duroek ere izan zuten bere garaia, baina horiek ere aspaldi pasa ziren eta, dagoeneko, norbaitek ondo gordeta dauzka etxeko zokoren batean edota filateliatan amaitu dute. 1936ko euskal gobernuaren txanpon eta billeteak ere aintzinatekoen modan aspaldi sartu ziren. Oraingoan, baina, 60 eta 70eko hamarkadetako aurrezki kutxetako egutegi kitsch hyper pastoralei tokatzen zaie (nork ez du gogoan Iparragirre bizardun gazte eta eder haren imajina?) Alegia, sasoi bateko pegatina

abertzale eta borrokariak gordetzeko garaia iritsi zaigu, Franco aurreko garai haietan guztiok harrotasunez paparrean generamatzanak hain zuzen. Edota ezlegalitateak ematen duen konplizitate zoragarrian oparitutako zilarrezko eraztun, belarritako eta abar lauburudunak antzinatekoen podiumera igo zaizkigu oraingoan. Kantaldietako posterrak, MKI-ren hasierakoak eta, Xabier Leteren eta Benito Lertxundiren lehenengo diskak dagoeneko antzinateko bihurtzear dira (idatzi ahala nostalgikak asaldatzen nau, snif!)